

Aretxagazeta

ETA GAINERA...

Ze barri?

ASTEKO GAIA

**Saihesbideko
lanak /08**

MUSIKA

**Lukas Prest taldearen
lan berria /09**

LEINTZ GATZAGA

**Eski irteera
kolokan /10**



TRIALSINA

DOMEKAN, KANPOSANTU INGURUAN, 10:30EAN

DIRU BATZEA: 1.418 EURO ASIARA BIDALTZEKO/4 • ITXIALDIA: BIHAR BUKATUKO DU KEPA URRAK/5

GUARDIAKO FARMAZIA

ZAPATUA, 5
ITURRALDE. Mitarte 18..... 943 79 27 22

DOMEKA, 6
ITURRALDE. Mitarte 18..... 943 79 27 22

TELEFONO JAKINGARRIAK

OROKORRAK

Almen 943 71 49 07
ARETXAGAZETA 943 79 86 21
Faxa 943 77 18 54
Basotxo 943 77 09 81
Euskaltegia 943 79 21 68
Gizarte laguntzailea 943 71 18 62
Hezibide elkarte 934 79 31 32
Industrialdea 943 79 62 80
Institua 943 79 79 00
Kirol etxea 943 71 26 28
Kultura etxea 943 71 10 27
Kurtzebarri Eskola 943 79 00 49
Kurtzebarri BHI 943 79 57 40
KZGunea 943 79 94 44
Liburutegia 943 71 18 62
Loramendi EE 943 77 09 70
Ludoteka 943 79 05 81
Mankomunitatea 943 79 30 90
Murruxo ME 943 79 93 74
Musika Eskola 943 79 36 50
Osasun etxea 943 71 19 59
Otalora 943 71 24 06
Parrokia (bulegoa) 943 79 18 42
Pausoka Haur Eskola 943 77 03 77
Postetxea 943 79 28 31
Santa Rita Ikastetxea 943 79 17 00
Taxi geltokia 943 77 12 64
Udal Bulegoak 943 71 18 62
Udaltzaingoa 943 71 18 63
Urats Gain 943 79 99 11

UDALTAINGOA

Arrasate 943 79 14 39

LARRIALDIK

SOS Deiak 112
Eskualde Ospitalea 943 03 53 00
Ertzaintza 943 79 71 99
Gurutze Gorria 943 76 55 76
Larrialdia 943 46 11 11
Suhiltzaileak (Oñati) 943 78 28 00

MEZAK

ANDRA MARIAREN ZERURATZE

PARROKIA
Domeketan: 11:00, 12:00
Zapatuetan: 19:30
Lanegunetan: 19:30

SANTA RITA

Domeketan: 09:00
Zapatuetan: 18:30
Lanegunetan: 08:00

BASERRI AUZOETAN:

LARRIÑO
Domeketan: 12:30

MENDIOLA

Domeketan: 12:00 (Otoitzaldia bakarrik)

GELLAO

Domeketan: 11:30

OHARRAK

KONTZENTRAZIOA

Isolamendu politikoaren aurka eta estatus politikoaren alde kontzentrazioa egingo dute bihar, zapatua, 19:00etan, eliza parean.

TRIALSIN PROBA

Gipuzkoako Trialsin Txápelketako laugarren proba egingo dute kanposantu inguruan, domekan, martxoak 6, 10:30ean hasita.

SEBASTOPELEKO TITIRITEROAK

Venus Attack antzezlan eskainiko dute Sebastopoleko Titiriteroek martxoaren 11n, egubakoitza, 18:30ean, kalean.

TRANBIAREN GAINEKO ERAKUSKETA

Tranbiaren proiektua ezagutzeko erakusketa dago ikusgai udaletxeko ganbaran, astegunetan 09:00etatik 20:00etara.

BENIDORMERAKO IZENEMATEA

Basotxo erretiratuen elkarteak Benidormera bidaiara antolatu du apirilaren 23tik maiatzaren 7a arte. Izena emateko Basotxotik pasatu.

ARGAZKI ESKE

Gurea tabernako argazki zaharrak batu gura dituzte. Hala, garai baten barra ostean egon zen zaldien koardoa ageri den argazkiak gura dituzte. Gureara eraman.

LORAMENDIREN AGENDA

GURASOEN ETA SEME-ALABEN ARTEKO HARREMANA BERBAGAI

Gurasoen eta seme-alaben arteko harremanaren gainean egingo dute berba martxoaren 10ean, eguena, 19:00etan, udaletxe zaharrean.


KORRIKA LAGUNTZAILEA

Korrika laguntzailea izan gura duena Loramendi EEtik pasa dadila. 12 euroren truke edozein izan daiteke.

ORAINDELA 8URTE ARETXABALETAN

Autobidea egiteko lehen azterketak hasi zituzten

Eibar-Gasteiz autobidea egiteko lurra aztertzen ibili ziren orain dela zortzi urte. Sonda-makinen bidez ibili ziren lurtean zuloak egiten herriko hainbat tokitan. Autobidearen ibilbidea garai hartan ez zen behin betikoa, baina Izurieta aldetik pasatuko zen susmoa zeukaten.



BERTAKO BERBAK/ Juan Martin Elexpuru

“Liraindudu”

lirain bihurtu.
—Len potolua zan baiña ziero liraindudu dago.



JON IRAEGI

LIBURUTEGIKOTXOKOA

Liburu berrien zerrenda

- 'En el blanco' / Ken Follett
- 'La misteriosa llama de la reina Loana' / Umberto Eco
- 'A la deriva' / Alberto Vázquez-Figueroa
- 'Pastoral americana' / Philip Roth
- 'Cortafuegos' / Henning Mankell
- 'El matrimonio amateur' / Anne Tyler
- 'El mundo conocido' / Edward P. Jones
- 'La mitad del alma' / Carme Riera
- 'El señor Ibrahim y las flores del Corán' / Eric-Emmanuel Schmitt
- 'Fantasmas del invierno' / Luis Mateo Díez
- 'Pasión india' / Javier Moro
- 'Tiempo de odio' / Andrzej Sapkowski
- 'La línea de la libertad' / Peter Eisner
- 'De La Alcarria al Himalaya : un viaje a Oriente en bicicleta' / Miguel Ángel Díaz
- 'Más Platón y menos prozac : filosofía para la vida cotidiana' / Lou Marinoff
- 'Ilunetik argira : Elbira Zipitria' / Resu Abasolo Gallastegi, Juana Lopez de Munain, Arantxa Urbe Irazusta
- 'Entzun!' euskal bideoklipen bilduma bat (DVD)

JOSEBA LÓPEZ DE ARMENTIA

Adi!

EKAINAREN 7tik AURRERA
Zorion agurrak
ASTELEHENEKO
GOIENKARIAN!

Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa

Gainera...

Zorion agurrak, SMS bidez!

Senitarteko, lagun, ezagun edo gustuko duzun neska/mutila bere urtebetetzean zoriondu nahi baduzu, Asteleheneko Goienkaria-k beste aukera bat emango dizu: SMSa bidaltzea.



MAITE
ILE APAINDEGIA
Sarasate 1 behea
Tel. 943 79 59 05
ARETXABALETA

GARBITU S. KOOP

Garbiketa
orokorrak

Errekabarren 3- Behea
ARETXABALETA
Tel: 943 79 01 28

ZARAIA
taberna


Goizeko 06:00etik irekita

Araba Ibilbidea 20 • ARETXABALETA • Tel.: 943 79 88 95

ATREBENTZIAEZPADA/ Faten zara Basotxok antolatuteko ekintzetara? Beste zeozer gureko zeuke?



SILVI GARRANCIO
Jubilaue




JUANITO ALDAI
Jubilaue



MERTXE KORTABARRIA
Jubilaue



MANUEL AIZPURUA
Jubilaue



MARIA DASILVA
Jubilaue



JULIAN MENDO
Jubilaue

Bai, hartzen dot parte; ixe egunero faten naz partidatxue jokaketan lokalera. Jaixek egitten dienien jente asko hurreraketan da Basotxora, ia beste egunetan be etorten dien.

Gutxi; beste zeregin batzuetan ibiltten naz eta pasau egitten jat. Musien egitten eta bazkari edo afariren bat dauenien bakarrik faten naz. Hori bai, noienien oso gustora egoten naz.

Bai, biaje danetara fan izen naz. Kanbixau ez neuke egingo baiñe jarri bai, dantzie jarriko neuke Basotxon. Aste bukaeretan gustora hartuko neuke musikie dantzan egitteko.

Bai, jatera jueten naz, eta biajietan be fan izen naz. Basotxoko lokalera be faten naz; gaur bertan egon naz, eta ez dauket inolako ke-jaik. Hola jarraitu daixiela luzeruen esango neuskio.

Bai, igez hasi nitzen, eta oso pozik faten naz Basotxora. Dantzie falta dala askok esaten daue, eta neuri be asko gustetan jat. Antza danez dantzan egitteko tokirik ez dau lokalien.

Bai, faten naz, eta antolaketan dauen dana gustetan jat. Lokala nehiko ondo dauela pentsetan dot, baiñe bero larrei egitten dau sarriten, gero; kalera urteten garenien hotz pasetan dou.

TXALOAKETATXISTUAK



TXISTUAK OSO LABAIN Izotza izan da protagonista azken asteotan, eta izotzak labain uzten ditu bazterrak. Izotzik egin barik labain egoten den tokia da argazkiko zubia. Nahikoa da euria egitea labain-labain egoteko, eta bertatik pasatzen direnak kontu handiarekin ibili behar izateko. Horretan adituek jakiten dute zer jarri behar den lurrera ez erortzeko; ea konponbiderik aurkitzen dioten. /M.A.

ETABARRUAN...

ASTEAN BEHIN /04

1.418 euro eman dituzte

Jaso dute udal-txean dirua batzeko zegoen kutxa. 1.418 euro eman dituzte herritarrek Asiarako.

ASTEAN BEHIN /05

Kepa Urria itxialdian

Itxialdia egiten dabil Kepa Urria presoen estatus politikoa aldarrikatzeko. Bihar bukatuko du.

KIROLAK /06

Trialsineko proba

Domekan Aretxabaletan egingo dute Gipuzkoako Trialsin Txapelketako hirugarren proba.

ASTEKO DATUA

9.308

EURO EMAN DIZKIOTE KARITASI

Tsunamiak kaltetutako herriei laguntzea erabaki zuen Udalak, eta 7.889,69 euro eman zituen. Herritarrek 1.418,69 eman dituzte; hortaz, 9.308,38 euro bidaliko dituzte Karitasen bitartez.

BESTEKEESANA

“ Medikuei lehen sasimediku esaten zitzairen. Artisaua, bestalde, eskuak erabilia lan egiten

duena da, eskuak dira oinarritzko lanabes gaixotasuna sendatzeko. Bizitzak eta naturak utzi diguten zaharrena da: geure bizitzaren bitartez sendatzeko artea.

Ekialdeko medikuntzaren oinarria eskuen bitartez sendatzea da: orratzen bitartez, masajeak emanda... Teknologiazko medikuntzari erreparatu gero, ostera, medikuak ukitu ere ez zaitu egiten. Mahai baten atzean esertzen zaitu, medikuak ordenagailuari begiratzen dio eta ia begiratu ere ez dizu egiten. Estatu Batuetan mediku batzuek gaixoa ez ukitzea erabaki dute, kutsatzeko arriskua duen zerbait izan dezakeelako.

EUGENIO RAMOS
‘El Diario Vasco’/05-03-02

HERRITARREN BERBAK/ Arrate Arkauz



Borondateak badu saririk

Ez omen du inork iritzi artikulurik idatzi nahi. Hari esan, honi galdetu, baina batek hargatik eta besteak zeragatik, denak ezezkoa. Oraingo hau beraz, neuri tokatu zait, astelehenero eta ostiralero, gustura jasotzen baitut gure egunkaria eta atsegin handiz irakurtzen. Honez gero, ez dut uste galduko denik eta aurrera egingo du, baina laguntzaileak beti beharko dira, gauza baterako ez bada, besterako. Borondatezko lana gero eta zailagoa da gure herrian, baina gero denok hartzen dugu pena gauza batek aurrera egiten ez duenean. Agian, kontua da laguntasuna eskainiko luken norbaiten atea oraindik ez dela jo, mezua ez dela ondo kaleratu, baina...

Pasa den asteburuan ere, mezua zabaltzeko arazoak izan omen zituzten, baina joan ginenok bikain pasatu genuen, taldetxo majoa elkartu ginen eta. Urrian ospatuko den Kilometroak antolatzen ari den

lantaldeak sagardotegira irteera antolatu zuen ostiral gauerako eta harrezkero, jende askori entzun diot: “neuk ere jakin izan banu...”

Hemen ere, jende ugari dabil borondatezko lanean, baina hara hor saria, ostiral gaua, giro bikainean pasatzeko

“Borondatezko lana gero eta zailagoa da, baina gero denok hartzen dugu pena gauza batek aurrera egiten ez duenean”

aukera: kantua, kontuak, sariak... udaberri aldera, beste irteera bat antolatu behar omen dute. Sagardotegira joan ginenok, ez dut uste huts egingo dugunik, gainontzekook adi egon!

Dena dela, saririk handiena, urriko lehen igandean izango dugu. Egun horretan ere herriko jende gehienok hartu beharko dugu parte lantaldeetan, baina polita izango da, gure herria eta inguruak, Euskal Herriko milaka eta milaka lagunei erakustea. Aretxabaletatik, autobus ugari aterata dira beste urte batzuetan ere beste herri bateko Kilometroetara. Oraingoan, gurera etorriko dira, eta aretxabaletarrok esku zabalik hartuko ditugu.

Aretxagazeta

Durana 11
20550 ARETXABALETAKO
Tel.: 943 79 86 21
Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxagazeta@goiena.com

ZUZENDARIA
Mirari Altube

ERREDAKZIOA
Mirari Altube
Zuriñe Velez de Mendizabal

MAKETAZIOA
Alex Azkarate

PUBLIZITATEA
Itsaso Berezibar

ZUZENTZAILEA
Sergio Azkarate

LEGE-GORDAILUA
SS-378-94

ISSN
1134-2609

TIRADA
2.700 ale

ARETXAGAZETA / ZE BARRI? • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jauriaritzako
Kultura Saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Aretxabaletako
Udala



Eskoriatzako
Udala



Leintz Gatzagako
Udala



BESTEAKBESTE

M. J. Aretxaga

Jateko kontuek

Bazkai eta afai kontuekin nator gaur. Batetik, sagardotegire fateko garaixe da, eta bestetik kintto afaxeekin hasitte daz batzuk. Fan zan egubakoitzien, **Jesus Erostarbe** Udal langilliei agur afaxe egin utzieren lankidiek. Jubilau egin jaku, Jesus, eta bere lanen ardurie Urrutiak hartu dau. Laister, lankide barrixe eukiko daue udaletxien. Martxuene egingo daue udaltzain postureko azterketa teorikue, eta apirillien izengo die fisikuek. 21 lagunek emun euien izena, ikusi egin biher zenbat datozen...

Fan zan egubakoitzien, sagardotegire fan zienak Kilometroak antolaketan dabitzen boluntariak izen zien. 40 bat lagun alkartu zien, aretxabaletarrak tartien. Giro politte sortu zan, kantuen eta bertsotan eta hurrenguen be egin biher ei daue.

Jubilauek be edarto pasau daue astien. 100 lagun alkartu zien Aingeru Guarda egune ospaketako eta zela ospatu, bazkaixe egindde! Alkatie, parrokie eta beste elkarte batzuetako ordezkariak be izen zittuzten mahai inguruen.

Hotz haundixek egiten dabil azken astiotan, baiñe jentiek ez dauela etxien geratu gure. Udabarrixen zain gazela danok uste dot.

DIRU-BATZEA/Karitasi guztira 9.300 euro eman dizkiote Asia aldera bidaltzeko

1.418 euro eman dituzte herritarrek tsunamiak kaltetutakoei bidaltzeko


MIRARI ALTUBE

Astelehenean, otsailak 28, jaso zuten udaletxeko harreran dirua batzeko jarritako kutxa. Herritarren ekarpenak zeuden bertan, tsunamiak kaltetutakoei laguntzeko ekarpenak. 1.418 euro eman dituzte herritarrek, eta horiei Udalak emandako ia 7.900 euro batu behar zaizkie.

Bost aste egin ditu tsunamiak kaltetutakoei dirua batzeko jarritako kutxak udaletxeko harreran. Astelehenean, otsailak 28, jaso zuten Udaleko Ongizate Saileko arduradunek, eta 1.418,69 euro zenbatu zituzten.

GUZTIRA 9.300 EURO

Tsunamiak kaltetutakoei laguntza bidaltzea erabaki zuen Udalak orain dela hilabete eta erdi. Nazioarteko herriei eta proiektuei laguntzeko duen diru partidatik %15 eman zuen Udalak berak, hau da, 7.889,69 euro; eta herritarrek ahal zutena ematera animatu zituen. Urtarrileko azken astean jarri zuen kutxa udaletxeko harreran, eta otsail osan egon da bertan. Herritar ugari hurreratu da dirua ematera, eta guztira 1.418,69-euro batu dituzte, tartean 50 dolarreko billetea.



Herritarrek 1.418 euro eman dituzte eta Udalak 7.889; hortaz, 9.300 guztira.

Horrela, bada, 9.300 euro bidaliko dituzte Asia aldera Karitasko Nazioarteko Lankidetzaren bitar-

tez. Bide batez, Udalak eskerrak eman gura dizkie dirua ematera hurreratu diren guztiei.



Ehun lagun elkartu ziren Aingeru Guarda egunean

Urteko egunik hotzenetakoa izan zen martitzena, martxoaren 1a. Hala ere, erretiratuak ez ziren beldurtu, eta 100 lagun elkartu ziren Aingeru Guarda eguna, Basotxo Erretiratuaren Elkartearen zaindariaren eguna, ospatzeko. Saldarekin barrua berotu eta meza entzun zuten. Taberna Berri jatetxean bazkaldu zuten gero, eta txutxumutxuak kontatu eta dantzan egin zuten gehienek. /M.A.

TABERNA
ARLUTZ
MITARTE, 16 • ARETXABALETA • TEL. 943 79 32 34

Iber

★ Loteria ★
* Paper denda *
* Liburuak *

Otalora 2.
ARETXABALETA
Tel.: 943 79 04 39

Aretz

taberna

"Oilasko erreak eta paellak eramateko"

Markole 5
Tel.: 943 79 14 67
ARETXABALETA

IRIARTE

Umeen denda

Helduen lentzeria



Durana 8
Tel.: 943 79 10 96
ARETXABALETA

LABUR

Sebastopoleko Titiriteroak etorriko dira egubakoitzean

Hurrengo egubakoitzean, martxoak 11, Sebastopoleko Titiriteroak etorriko dira herrira Korrika kulturalako egitarau barruan. *Venus Attack* lana eskainiko dute 18:30ean. Fikzioa eta komikotasuna batzen dituen kalejira eskainiko dute Sebastopoleko Titiriteroek *Venus Attack* lanarekin. Artizarko komando bat etorriko da gure artera Lurra planetan adimendun bizitzarik dagoen aztertzerara. Bitartean, udaltzainek espaziuntzia eramango diete.

Osasun etxean 20:00ak arte egoten da mediku bat

Joan zen astean hasita hiru lagunek osatutako talde txiki bat 20:00ak arte egoten da osasun etxean. Ohiko kontsultak 15:00etan bukatzen dituzte medikuek, eta 15:00etatik 20:00etara mediku bat, erizain bat eta administrari bat gelditzen dira larrialdi kasuetarako. Pediatriako larrialdietarako, bestalde, Arrasateko ospitalera joan behar da.

ITXIALDIA/ Itxialdiak iraun duen bitartean hainbat ekintza egin dituzte herrian, presoen estatus politikoaren alde

Bihar, zapatua, bukatuko du Kepa Urrak presoek eskubideak aldarrikatzeko egin duen itxialdia

M.A.


Debagoieneko preso politikoak txandakako itxialdiak egiten dabilta. Otsailaren 23an seigarrena hasi zuten, eta Kepa Urria aretxabaletarra dago zigorgelan beste zazpi preso bezalaxe. Bihar bukatuko dute itxialdia, eta hori gogorarazteko kontzentrazioa egingo dute herrian.

Kepa Urria burrukan, gu ere bai! lelopean hainbat ekintza egin dituzte astean herrian. Isolamendu politikoaren aurka eta estatus politikoaren aldeko aldarrikapenak izan dira.

PRESOEN ESKUBIDEAK

Seigarren itxialdia hasi zuten otsailaren 23an Debagoieneko zortzi presoek: Coruñako Curtisen dagoen Kepa Urrak, Alberto Plazaola eta Xabier Ugarte oñatiarrak, Paulo Elkorro bergararrak, Jon Agirre aramaioarrak eta Saioa Alzua, Amaia Arrieta eta Premin Sanpedro arrasatearrek. 10 egun egingo dituzte zigorgelan, eta bihar, zapatua, bukatuko dute itxialdia.

Oinarrizko eskubideak zein eskubide politikoak aldarrikatu gura dituzte presoek itxialdiekin. Oinarrizko eskubideen artean daude: isolamendu egoerarik eta bakartzerik ez jasatea, jipoiarik ez jasotzea, gaixo daudenak askatasuna, ikasteko eskubidea, hizkuntza eskubidea eta komunikatzeko duten askatasuna ez murriztea. Eskubide politikoan



Kontzentrazioa egin zuten joan zen egubakoitzean, eta bihar ere halaxe egingo dute presoek eskubideak aldarrikatzeko.

arte, bestalde, honakook aldarrikatzen dituzte: elkartzeko eta antolatze eskubidea, gainerako eragile politikoekin harremanak izateko eskubidea, eta Euskal Herriaren gaineko eztabaida eta erabaki guneetan parte hartze eskubidea.

BIHAR, KONTZENTRAZIOA

Euskal presoak eta Kepa Urria borrokan dabilta gogorarazteko hainbat ekintza antolatu dituzte herrian. Horren berri emanaz, gainera, orriak jarri zituzten atarte guztietan. Kontzentrazioa egin zuten itxialdia

hasi zutenean, otsailaren 23an, automobil karabana antolatu zuten eguaztenean, eta seigarren txandaren bukaera gogorarazteko berriz kontzentrazioa egingo dute; bihar, zapatua, izango da hain zuzen, 19:00etan, eliza parean.



Antzerki emanaldi ikusgarriak egin dituzte Kurtzebarri eskolan

Bukatu dute Antzerki Astea Kurtzebarri eskolan, eta emanaldi dotoreak ikusi dituzte bertara hurreratu direnek. 6 eta 12 urte arteko ikasleak izan dira artista eta protagonista egunotan. Batzuk antzezlanak, beste batzuk txotxongilo emanaldiak, eta abesti edo dantza erakustaldiak eskaini dizkiete ikaskide eta gurasoei. Aktore dohainak erakutsi ditu batek baino gehiagok. /M.A.

LABUR

Guraso eskolak antolatutako hitzaldia Almenen

Arizmendi ikastolako guraso eskolak hitzaldia antolatu du Almen gunean. Zela jokatu ikasleek agresibitatearen aurrean izango da gaia, eta astelehenean, 19:00etan, egingo dute hitzaldia.

Kaminerokua baserria joan zen zapatuan bota zuten

Joan zen zapatuan bota zuten Kaminerokua baserria. Tubos de Precision lantegi alboan zegoen, eta haren lekuan etxebizitza sozialak egingo ditu Eusko Jaurlaritzak. Errentan emango ditu eta 20 izango dira guztira. Iazko ekainean zozketatu zituzten etxeok, eta dagoeneko eraikitzen hasita egon behar ziren.

Nagusilan Elkartek aurkezpen ekitaldia egingo du Basotxon

Nagusiek osatu duten borondatezko langileen elkarte, Nagusilan, aurkeztuko dute Basotxo Erretiratuen Elkartean, eguaztenean, martxoak 10, 17:00etan. Nagusilanezko kide Jabier Aranguren eta Tomas Atxa etorriko dira Aretxabaletako erretiratuei borondatezko langileen gainean berba egitera.

Zabalik dago udaleku irekietan begirale izateko izenemate epea

M.A.

Uztailean egingo diren udaleku irekietan begirale izateko izenemate epea zabaldu du Udaleku Kultura Sailak. Era berean, udalekuetako zuzendaritza batzorderako ere kideak behar dituzte.

Aurtengo udaleku irekietan begirale izan gura dutenek apirilaren 1a bitartean izango dute izena emateko aukera. Curriculumak Kultura Sailera bidali behar dituzte.

16 URTETIK GORAKO EUSKALDUNAK

Urtero moduan udaleku irekiak antolatuko ditu Udaleku Kultura Sailak uztailean. Ia 200 ume eta gaztetxo ibiltzen dira urtero udaleku irekietan. Horiek, baina, begiraleak behar izaten dituzte, 30en bat, eta dagoeneko zabaldu du izena emateko epea Kultura Sailak. Bi baldintza bete behar dituzte eskaera egiten dutenek:

16 urte beteta izatea eta euskaraz jakitea. Horiez gain, Kultura Sailako arduradunek eskarmentua hartuko dute kontuan: ikasketak, egindako ikastaroak, aurretik egin dituzten lanak... Gainera, nahiago dute begiraleek 18 urte izatea.

Curriculumak Udaleku Kultura Sailera bidali behar dituzte interesatuek: Kultura Saila, Otxalora 1, 20.550 Aretxabaleta. Korreo elektronikoko bidez bidali gura duenak, hona helbidea: kultura@aretxabaleta.net; eta informazio gehiago gura duenak dei egin dezala kultura etxera: 943 71 10 27. Apirilaren 1a izango da curriculumak jasotzeko azken eguna.

ZUZENDARITZA BATZORDERAKO KIDEAK

Bestalde, udalekuak antolatu eta jarraipena egingo dien zuzendaritza batzordea osatu gura dute. Hortaz, begiraleetako bat geratu balego zuzendaritzan parte hartzeko curriculumean hala adierazi dezala.

TRIALSINA

Gipuzkoako Txapelketako hirugarren proba egingo dute domeka goizean

Eguraldiak laguntzen badu munduko txapeldun izandako asko etorriko dira probara

M.A.

Gipuzkoako Trialsin Txapelketako hirugarren proba egingo dute domekan, kanposantu inguruan. Eguraldiak laguntzen badu neska-mutiko asko elkartuko dira, munduko txapeldun izandako asko tartean. Horiez gain gura duen guztiak hartu ahal izango du parte.

UDA elkarteko txirrindularitza sailak antolatuta eta elurrak eragotzen ez badu trialsin proba egingo dute domeka goizean herrian.

ARETXABALETAR ASKO

Hirugarren aldiz antolatuko dute Aretxabaletan Gipuzkoako Txapelketako proba bat. Kanposantu inguruan eta Santa Kurtz kalean jarriko dituzte ibilbideak, eta 10:30ean hasiko da proba. Izena aurrez eman behar da, eta parte hartu gura duenari antolatzaileek bizikletak eta kaskoak utziko dizkiete.

Hainbat aretxabaletar dabilta Gipuzkoako Txapelketa jokatzeko, eta domekan ere proba polita egiten saiatuko dira. Benjami-



Hirugarren aldiz antolatuko dute aurten trialsin proba Aretxabaletan.

nak dira txikienak, eta Unai Zunzunegi, Iker Mendikute eta Itziar Murua dabilta. Alebinetan Aitor Murua dabil, eta infantiletan Markel Uriarte. Ez junior mailan, ez superclass mailan ez dabil aretxabaletarrik. Neskei dagokionez Nagore Uriarte eta Oihana Aldai daude.

Aretxabaletarrez gain, kanpotik ere hainbat neska-mutiko etorriko dira, tartean munduko txapeldun izandakoak: superclass mailan Iker Lezeta, Benito Ros eta Diego Barrio; infantil mailan Jon Areitio eta Abel Mustieles, eta nesken mailan munduko onenak, Kataluniako Avant ahizpak.

FOTOKIROLA



UDAKo zozketako saria etxera

Joan zen zapatuan eman zuen UDAk egutegiaren zozketako saria, 600 euro hain zuzen. Infantil txiki taldeko ardura-dunak, Alfonso Luelmok, eman zion dirua irabazleari. Hain zuzen infantil txiki taldeko Jonathan Raso arrasatearrak anaiari saldu zion egutegia. Aretxabaleta Kirol Elkarteak eskerrak eman gura dizkie egutegia erosi zuten guztiei. Batutako dirua oinarritzko taldeek aurrera egin dezaten erabiliko dutela aipatu zuten. /M.A.

KARATEA

Bosgarren gelditu zen Odei Vazquez eskola kiroleko Gipuzkoako Karate Txapelketan

Joan zen zapatuan, otsailak 27, eskola kiroleko Gipuzkoako Txapelketa jokatu zuten Donostian, eta Odei Vazquez karatelari aretxabaletarra izan zen bertan. Kata modalitatean 32 gaztetxo elkartu ziren, eta bosgarren postuan geratu zen Odei. Hala ere, oso lan txukuna egin zuen; izan ere, Donostia eta Irun inguruan hainbat gaztetxok daukate gerriko beltza, eta maila handia dago. Kumite modalitatean, oster, lehen aldiz egin zuen borrokan Odeik, eta berdindu egin zituen egindako hiru borrokek. Epaileek, baina, aurkaria izendatu zuten txapelduna. Hurrengo txapelketa maiatzean egingo dute, Azkoitian.

XAKEA

Berdindu egin zuen Arlutz Xake Taldeak, eta bosgarrena da sailkapenean 15 punturekin

Denboraldi polita egiten dabil Arlutz Xake Taldea Euskal Ligako ohorezko mailan. Joan zen zapatuan jokaturako partida berdindu egin zuen Iruñako Orvina taldearen aurka, eta hala, partida bakarra galdu du denboraldi osoan. Bosgarren postuan daude sailkapenean 15 punturekin, eta partida bi bakarrik geratzen zaizkie denboraldia bukatzeko. Hortaz, ez dute izango mailari eusteko arazorik. Bihar, zapatua, Errenteriako Fomento Beraun taldearen aurka jokatu beharko dute, eta hurrengo zapatuan, martxoak 12, Gros taldea izango dute aurrez aurre, liderra hain zuzen.

PILOTA

Lehen mailako nagusiek irabazi egin zituzten partidu biak, eta bigarren mailakoek galdu

Lehen mailan jokatzeko duten bikote biek irabazi egin zituzten partiduak joan zen aste bukaeran. Lasagabaster/Alzola bikoteak etxean jokatu zuen hernaniarren aurka, eta 22-13 egin zuten. Errasti anaiak Intxaurrendora joan ziren, eta 21-22 irabazi zuten, partidu gogorra jokatu ostean. Bigarren mailan dabiltzan Uriarte/Oion bikoteak, bestalde, galdu egin zuen Eibarren, 22-15.

Aste bukaera honetan atsedean hartuko dute Errasti anaiak. Beste laurek Aretxabaletan, bertan, jokatu dute, gaur, egubakoitza, 19:30ean. Uriarte/Oionek Lazkaoko bikotea izango dute aurrez aurre, eta Lasagabaster/Alzolak Ordiziakoak.

PARTIDUAK

FUTBOLA

Zarautz-UDA

Preferentea.

Domeka, 16:30. Zarautz.

Arizm./UDA-Amaikak Bat

Lehen mailako kadeteak.

Zapatua, 15:30. Ibarra.

PILOTA

Aretxab.-Ordizia

Lehen mailako nagusiak.

Egubakoitza, 19:30. Iturrigorri.

Aretxab.-Lazkao

Bigarren mailako nagusiak.

Egubakoitza, 19:30. Iturrigorri.

EMAITZAK

FUTBOLA

UDA 5 Zestoa 0

Preferentea.

Euskalduna 0 UDA 2

Gazteen ohorezko liga.

UDA/Arizm. 1 Orioko 2

Lehen mailako gazteak.

Elgoibar 1 UDA/Arizm. 0

Lehen mailako kadeteak.

Euskalduna 2 UDA/Arizm. 0

Bigarren mailako kadeteak.

UDA/Arizm. 1 Lagun O. 1

Infantil ohorezko maila.

UDA/Arizm. 1 Lengokoak 4

Infantil txiki.

UDA - Eibar -bertan behera

Alebinak

Almen/UDA 1 Beti Ona 2

Emakumeen liga.

PILOTA

Udaberri Pilota Txapelketa

Aretxab. 22-Hernani 13

Lehen mailako nagusiak.

Intxaurrendora 21-Aretxab. 22

Lehen mailako nagusiak.

Eibar 22-Aretxab. 15

Bigarren mailako seniorrak.

Okindegia - Gozologia

Aretxabaleta

Loramendi 6 • 943 77 17 19
Basabe 2 • 943 77 00 81
Aretxabaleta
Bertako okina

**JAR EZAZU
HEMEN
ZURE
PUBLIZITATEA**
TEL.: 943 79 86 21


Aretxagazeta

AZKARATE
aroztegia


943 76 47 19
eta 610 88 40 20

ateak • leihoak
horma-armairuak
tarimak • parketak

**LANTOKI BERRIA
LABEGARAIETAKO
INDUSTRIALDEAN
BERGARAN**



propaganda
kartelak
kartak
jai egitarauak
pegatinak
liburuak
etiketak
txartelak
errekordatorioak
gonbidapenak
errebistak
inprimakiak



EGUZKiGRAF

inprimategia

Aretxabaletako Industrialdea F-0-4
20550 Aretxabaleta
Tfnoa: 943 791 844 - Faxa: 943 792 941
E-mail: info@eguzkigraf.com

*1979urtetik
zure zerbitzura*

Zebarri?

U R L A T I K L A N D E T A R A

ESKORIATZA ETA LEINTZ GATZAGA / Egubakoitza / 2005eko martxoaren 4a / 200. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Mirari Altube • Durana 11 20550 ARETXABAETA • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54 • Posta elektronikoa: zebarri@goiena.com • Lege gordailua: SS200/99

Saihesbideko erreiri bat hondoratzen hasita dagoela-eta lanak egingo dituzte

ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL

Saihesbideko erreiri bat ondortzen hasi da. Segurtasun neurriengatik tuneleraino doan bide zatia itxi egin dute. Datozen asteotan hasiko dira konponketa lanak egiten. Ez du eragin larririk itxierak; hala ere, ohi baino auto-ilara luzeagoak sortzen dira.

Eskoriatzako saihesbideko lurra gaizki dago, eta horren ondorioz itxi dute ezkerreko bidea. Izan ere, orain aste batzuk konturatu ziren lurzorua ez zegoela ondo. Hori dela eta, errepiidea ikuskatzera joandakoek hainbat segurtasun neurri hartu zituzten eta hondoratzen ari zela konturatu ziren.

Intxaurtxueta aldetik irten eta tuneleraino doan bidean, ezkerreko erreia eten egin dute trafikoa-erentzako. Ondokoa bakarrik erabil daiteke, eta ondorioz ohikoak baino auto-ilara luzeagoak sortzen dira bertan; arazorik ez dute sortzen baina.

Konponketa lanak datozen asteotan hasiko dituztela eman dute aditzera Udaleko arduradunek, "nahiz eta oraindik eguna zehaztu gabe egon", azaldu dute.



Ezkerreko bidea itxi dute gorako norabidean tuneleraino lurra hondoratzen ari zen eta.

OTSAILEKO OSOKO BILKURA

Aurreko asteko egunean, otsailak 24, egin zuten udaletxean hileko ohiko osoko bilkura. Besteak beste, udal-aisialdi zerbitzuen gestio-

ari buruz aritu ziren. Oraindik ez dakite nor arduratuko den horretaz, hutsik geratu baita lanpostua. Elkarte bakarra aurkeztu zen lehiaketara eta orain batzorde batek

aztertu beharko du hutsik geratzearren arrazoiak. Gainera, lanarekin zer egin daitekeen erabaki beharko dute. Ziurrenik, berriz aterako dute lehiaketara.

Saihesbideko lurra hondoratzen ari dela ikusi eta erreia ixtea erabaki dute

Otsaileko azken egunean osoko bilkura egin, eta udal-aisialdi zerbitzuei buruz aritu ziren

Lehiaketara atera zuten; elkarte bat aurkeztu zen, baina hutsik geratu da lanpostua



Bizigune programa hitzartu zuten astelehenean

Astelehen goizean izenpetu zuten Bizigune programa. Juan Carlos Bengoa alkateak eta Javier Madrazok sinatu zuten hitzarmena, eta herriko etxebizitza hutsei buruko hainbat datu eskaini zituzten. Momentuz hutsik dauden etxebizitzetatik bakarra dago errentan emanda, eta guztira 151 eskara daude. Eskoriatzako herritarrek egin dituzte eskaerak, baina baita beste hainbat herritakoek ere; hala azaldu zuen Etxebizitza eta Gizarte Gaierako sailburuak. /Z.V.M.

LABUR

Aurrerantzean, biblioteka goizetan ere zabalik

Eskoriatzako bibliotekak ordutegi aldaketa izan du. Izan ere, atzo ezkerreko goizez ere irekiko dute. 10:30etan zabalduko dituzte ateak 13:00ak arte. Arratsaldeetan, berriz, orain arte bezala jarraituko du; 16:30ean ireki eta 20:00etan itxiko dute. Zapatuetan goizez bakarrik irekiko dute, 10:30etik 13:00etara.

Aspalditik ari ziren eskoriatzarrak zerbitzu hori eskatzen eta aste honetan hasiko dira, beraz, ordutegi berrira moldatzen.

TELEFONO JAKINGARRIAK

ESKORIATZA	
Udaletxea	943 71 44 07
Udal bulegoak	943 71 45 32
Udaltzaingoa	943 71 44 07
Euskaltegia	943 79 21 68
Kultura etxea	943 71 46 88
Gizarte laguntzailea	943 71 31 36
Kirol etxea	943 71 53 28
Liburutegia	943 71 31 35
Luis Ezeiza	943 71 53 56
Jose Arana Almen Ikastola	943 71 44 86
Almen	943 71 49 07
Museo Eskola	943 71 54 53
Axtroki	943 71 54 34
HUHEZI	943 71 41 57
Osakidetza	943 71 44 52
Telesko	943 71 49 17
Taxiak	943 71 40 59

BESTELAKOAK	
Eskualde ospitalea (Arrasate)	943 03 53 00
Gurutze Gorria (Bergara)	943 76 55 76
Ertzaintza (Arrasate)	943 79 71 99
Suhiltzaileak (Oñati)	943 78 28 00
Renfe (Zumarraga)	943 72 15 15
Renfe (Gasteiz)	945 23 20 30
PESA (Arrasate)	902 10 12 10
Larrialdiak (Arrasate)	943 03 53 00
SOS Deiak	112

OHARRAK

ARETO FUTBOLA

Ohorezko ligako partidua bihar, zapatua, 18:00etan. Eskoriatza KE-Ioar A taldeak izango dira nor baino nor gehiago.

GURASOENTZAKO HITZALDIA

Lehen Mailako Hezkuntzan seme-alabak dituzten gurasoei zuzenduta *Nola jokatu ikasleen agresibitatearen aurrean* hitzaldia. Martxoaren 7an 18:00etan Almen gunean.

UDALEKU IREKIAK

Udaleku irekietan zuzendari eta begirale gisa lan egin gura dutenek apirilaren 1a baino lehen curriculumak kultura etxera eraman.

AXTROKIRENAGENDA

BERTSO ESKOLA

Bertso Eskola 2004-2005 ikasturteko kuota martxoan kobratuko du Axtrokik. Argibide gehiagorako dei egin arratsaldean 943 71 54 34 telefonora edo axtroki@topagunea.com helbidera idatzi.

TABERNETAN ETA GAZTETXEETAN SALDUKO DUTE

Lukas Prest talde eskoriatzarrak zazpi abestiz osatutako lana kaleratuko du datorren astean

Z.V.M.

Talde gaztea da Lukas Prest. Eskoriatzako lau lagunek osatzen dute, eta maketa grabatu berri dute. Datorren astean jarriko dute salgai; hala uste dute taldekideek. Izenik ez duen lanak zazpi abesti jasotzen ditu, eta kritika da nagusi kantuen hitzetan..

Hardcore eta punk-rock doinuak egiten dituzte eta kritika nagusi da euren hitzetan

Laster izango da kalean Lukas Prest talde eskoriatzarraren lan berria. Maketa izango da, eta zazpi abestiz osatuta egongo da. Horietariko sei taldeak eginikoak dira eta bestea bertsio bat da. Hardcore eta punk-rock doinuak egiten ditu Lukas Prestek. Bestalde, askotariko gaiak lantzen dituzte euren hitzetan, eta "gizarteko zenbait gairi kritika egiten diegu; besteak beste, AHTri, torturari..."

Datorren astean jarriko du talde eskoriatzarrak salgai bere azken lana. Batez ere tabernak izango dira diskoaren salmenta tokiak, "eta baita inguruko herrietako gatzetxeak ere", gaineratu dute. Lukas Presteko lagunak arduratu dira guztia egiteaz: diseinua, grabaketa, banaketa...

LUKAS PREST

Lukas Prest 2000. urtean elkartu eta saioak egiten hasi zen. Lau kide ditu talde eskoriatzarrak. Txefo (ahotsa), Kako (bateria), Zeke (gitarra) eta Lili (baxua) dira taldekideak. Orain, kide bat Gales aldera joan da hiru hilabeterako. "Kanpoan den bitartean, kanta berriak prestatzen hasiko gara", eman dute aditzera. Uda partearako, baina, bira bat egiteko asmoa dute.

"Euskal Herriko hainbat tokitan kontzertuak emango ditugu eta dagoeneko lotuta ditugu horietariko emanaldi batzuk", gaineratu dute. Bestalde, "Katalunia aldera ere joateko asmoa dugu, gure musika bertan ezagutarazteko asmoz", azaldu dute Lukas Presteko taldekideek.



LUKAS PREST

2000. urtean elkartu ziren lehenengoz eskoriatzarrak.

KIROLA ASTEBURUAN ETA MARTXOAREN 8A/ 'Kirol clinic'ari buruzko hitzaldia eta Oihulari Klown taldearen ikuskizuna

Areto futbola mintzagai izango dute domekan kiroldegian egingo den hitzaldian

Z.V.M.

Asteburua kirol kontuekin beteta dator. Izan ere, mendi irteera antolatuta dute Mazmela aldera. Areto futbolari buruzko hitzaldia ere eskainiko du nazioartean prestigioa duen Jesus Candelas entrenatzaileak. Martitzenean, berriz, Oihulari Klownen emanaldia izango da.

Asteburuan kirola nagusituko da Eskoriatzan. Domekan, bi hitzordu daude gai horrekin lotuta. Has-

teko, Luis Ezeiza Guraso Elkarteak antolatuta mendi irteera egingo dute. Eskoriatza ezagutzea helburu duen *Mendi ingurua ezagutu* ekimena hasi zuen otsailean Guraso Elkarteak.

Irteera bakoitzean elizate bat ezagutzeko asmoa dutela eman du aditzera elkarteak. Hala, domeka honetan Mazmela ingurua ezagutzera joango dira. 09:15etan irtengo dira Herriko Plazatik, eta gura duten guztiek parte har dezaketela gaineratu dute irteeraren antolatzaileek.

'KIROL CLINIC'A

Domekan 10:45etan *Kirol clinic* ari buruzko hitzaldia eskainiko du Jesus Candelasek. Entrenatzaileentzat areto futboleko zenbait taktikari buruzko azalpenak emango ditu Candelasek. Boomerang Intervi taldeko entrenatzailea da hura, eta munduko areto futbol entrenatzaile onenari *Futsal Planet* nazioarteko webguneak ematen dion saria eskuratu du. Kiroldegian izango da hitzordua, eta, besteak beste, entrenamendu eta partiduei buruz mintzatuko da.

EMAKUMEAREN NAZIOARTEKO EGUNA


Martitzenean ospatuko da Emakumearen Nazioarteko Eguna. Hori dela eta, Virginia Imaz komikoa herrian egongo da martitzenean, hilak 8. Ibarraundi jauregian *Abuela* bere azken lana aurkeztuko du. 18:00etan hasiko da Oihulari Klown taldearen emanaldia. Amaieran, luntxa egongo da bertaratzen diren guztientzako. Iaz kultura etxean aritu zen Imaz, eta aretoa lepo bete zen bergararraren emanaldia ikustera animatu ziren lagunekin.

AZKOAGA

ESTANKOA

943 71 48 77

Zure
Zerbitzura



FAGOR

Fagor Ederlan

Fagor Ederlan, Elk. Koop.

Gustafadui auzoa 42
20540 Eskoriatza
Gipuzkoa

Tel: +34 943 719 000
Fax: +34 943 719 001



Zenbait arazo direla-eta ez dakite eskiatzera joango diren datorren astean

Z.V.M.

Martxoko bigarren asteburuan hitzordua zuten Guraso Elkar-teko lagunek elurretan. Candanchu aldera joan behar zuten eskiatzera, baina ostatuarekin arazoak izan dituzte eta oraindik ez dakite joango diren edo ez. Bilera egingo dute gaur arratsaldean.

Leintz Gatzagak Guraso Elkar-teko lagunek datorren astean irteera egin behar zuten. Martxoaren 12an eta 13an Candanchu aldera joan behar zuten eskiatzera. Baina ostatu hartu behar zuten tokia itxi egin dute. Ikuskapena egin zioten tokiari, eta, antza, ez zituen beharrezko baldintzak betetzen;

hala adierazi digu Itsaso Egin GUREL elkarteko idazkariak. "Orain bilera egin beharko dugu irteerarekin zer gertatzen den jakiteko", gaineratu du. Printzipioz ez dute bidaiaren eguna aldatu.

GAUR ARRATSALDEAN, BILERA

Gaur 18:30ean egingo dute bilera elkartean eta guztia argitzea espero dutela adierazi du Eginok. "Ea elurretara joateko aukera dugun; izan ere, gazteak desiratzen zeuden eguna noiz iritsi". Baina ez da ahotan hartuko duten gai bakarra izango. Ludotekari buruz ere hitz egingo dute. Bestalde, otsailen Eskoriatzara eskalatzera joateko antolatutako irteera bertan behera geratu zen eta egun berria finkatzen saiatuko dira.

Ostatu hartu behar zuten tokia ikuskapen baten ondorioz itxi egin dute

Printzipioz ez dute bidaiaren eguna aldatu; zer egin erabakitzeko bilera egingo dute gaur



Eskiatzeko gogo handia dute herriko gazteek eta gaurko bileran gauzak konpontzea espero dute gurasoek.

ARTXIBOA

Bihar Debagoieneko txirrindulari taldeen aurkezpena herrian

Azken urteetan Dorletako Ama Txirrindulari Eskola Leintz Gatzaga aldera gerturatzen da Debagoieneko taldeen aurkezpena egitera. Aurten ere hitzordua herrian izango da, eta bihar elkartuko dira horretarako.

Hasteko, 10:30ean Dorletako Santutegi aldera joango dira. Bertan meza txiki bat egingo dute, eta segidan, talde guztiak lore eskaintza egingo diote Ama Birjinari.

Ondoren, herrira jaitsiko dira. Bertan, Toki Eder elkartera abiatu eta talde guztiak banaka aurkeztuko dituzte.

Segidan, sabela betetzeko aukera izango dute bertaratzen direnek. Izan ere, elkartean bertan luntxa egingo dutela eman

dute aditzera antolatzaileek. Hori, baina, aurkezpenen ostean izango da, 12:00ak inguruan.

IAZ ERE, LEINTZ GATZAGAN

Iaz ere herrian egin zuten aurkezpena. Zenbait arazo izan zituzten ekimenarekin, baina. Izan ere, orduan eguraldia ez zuten lagun izan eta elurrak ekitaldia astebete atzeratzea eragin zuen.

Hala ere, atzerapenak atzerapen, Dorletako Ama Txirrindulari taldeak hiru talde aurkeztu zituen herrian: gazte, kade eta infantil mailak. Gainera, beste kategoria berri bat eman zuen ezagutzera Eskolak, mendiko bizikleta kategoria, hain zuzen ere.

LABUR

Sorginak taldearen bazkaria bihar

Bihar ospatuko dute herriko emakumeek Emakumeen Nazioarteko Eguna. Bazkaria egingo dute Gure Ametsa jatetxean, 14:30ean hasita. 30 lagun inguru elkartuko dira mahaiaren bueltan. Ondoren, dantza egiteko aukera izango dute. Gazte eta helduek batera igaroko dute eguna. Urteroko ohiturari jarraituz isuskiak banatuko dituzte bertaratzen direnen artean. Hala ere, aurreko urteetan isuskiak eskuratu duten *sorginek* ez dute horretarako aukerarik izango. Ziur primerako giroa sortzen duela herriko emakume taldeak!

Herritarren ahotik entzundako abesti eta ipuinak jaso zituen Azkuek, bi liburutan

Resurreccion Maria de Azkue euskaltzaleak 1918an Cancionero Popular Vasco lana argitaratu zuen. Euskal Herriko txoko askotako abestiak jaso zituen bertan.

Leintz Gatzaga ere agertzen da kantutegi horretan, eta ez dira gutxi gatzagarrengandik jaso zituen abestiak. Besteak beste, *Aritz adarrean; Txiribogin andrea; Dringilin drangon; Nere maitea, maite polita; Bein yoan nintzan; Liburu labiru; Asentsio Eguna; San Miliango elizeak* eta *Biztuko balitzate* kantak jaso zituen.

Bestalde, Leintz Gatzaga-ko biztanleei entzundako ipuinak ere bildu zituen Azkuek Euskal Herriaren Yakintza liburuan. Hala nola, *Legoia ta olagizonak; Ordi bat; Txerrenen adina; Eskribaua eta errotaria* eta *Kukuak nori jo*.

AZKUE EUSKALTZALEA

Lekeition jaio zen Resurreccion Maria de Azkue, 1864. urtean, eta Bilbon zendu zen, 1951. urtean. Euskal Herriko zoiko guztiak miatu zituen, eta euskara, folklorea eta beste-lako kontuak bildu zituen.

**ENRIKE
MAZMELA
BOLINAGA**

HORTZ
KLINIKA



Eduardo Gorosarri 3-1. esk.
Tel.: 943 71 47 36
Eskoriatza

Villar
Ile apaindegia

Olazar auzoa 9
Tel.: 943 71 50 42
ESKORIATZA



MIRENTXU
TABERNA

Kafe goxoa hartzeko
Tel.: 943 71 41 67

**JAR EZAZU
HEMEN
ZURE PUBLIZITATEA**

Ze barri?



DEBARRI

Jose Ramon Perez, Leintz-Gatzagako alkatearekin berbetan


Martitzenean, martxoaren 8an
21:00etan

Aurkezlea:
Alberto Gorritiberea

Parte hartzeko telefonoa:
943 71 23 93

Goitb
Goiena Telebista

Ikustekoa!

DEBARRI / Babeslea:

ARRASATE-ARETXABALETA

Aretxabaleta eta Eskoriatzako

Gremioen Gida



**PINTURAS
ALTO DEBA.**

DEKORAZIO PINTURA
PINTURA INDUSTRIALA
FATXADAK

Tel.eta Faxe: 943 71 41 82 Poltsikokoa: 639 37 45 25



**J.SANCHEZ
ITURGINTZA**

- Bainurako gaiak
- Etxe barruko gas instalazioak
- Bainurako altzariak

Basabe poligonoa A - 2 - 10
ARETXABALETAK
Tel.eta faxe: 943 79 69 32 Poltsikokoa: 689 58 79 12

Dintura eta dekorazioa



Gimbert

San Migel 13, behea C
ARETXABALETAK
609 143 119



RADIO
ELECTRICIDAD
LEGAZPIA

"R.E.L.E."
Gotzon Beitia Lazkano

Denda:
Santa Ana 17, Eskoriatza
Tfnoa-Faxe: 943 71 41 65
Tailerra:
Santa Ana 12, Eskoriatza
Tfnoa-Faxe: 943 71 41 12

ESKORIATZA

AITZORROTZ
elektronika

- Telebista, audio eta bideo salmenta eta konponketa
- Instalazio elektrikoak
- Atezain automatikoak
- Antena kolektiboak
- Informatika

Aitzorrotz elektronika Tel.: 943 79 16 10
Otalora, 14 ARETXABALETAK

Hnos. SAJERAS, C.B.



Margogintza
Dekorativo eta Industrialak

San Pedro, 14 behea ESKORIATZA
Tel.-Faxe: 943 71 47 28
Arrasate Tel.: 943 77 16 66
Poltsikokoa: 608 92 11 18

FRIXI Eraikuntzak

Hormigoizko estrukturalak,
urbanizazio, kontratak
eta enpresen mantenimenduak

Aranburuzabala 56 ESKORIATZA
Tel. eta faxe: 943 71 55 15 Poltsikokoa: 629 51 39 22



Jon Axpe Oyanguren

OYANGUREN
Iturgintza

Aranburuzabala 15
ESKORIATZA
Tel.: 943 71 47 14
606 007 369
f.oyanguren@ctv.es

- Iturgintza •
- Gasa •
- Berogailuak •
- Petrolio-produktuak •
- limatizazioa •

L. GONZALEZ

PINTURAK

Pintura orokorra eta enpapelatua

Basabe poligonoa F-6
ARETXABALETAK
686 113 581

ARETXARGI

Modesto ROMEO
Aretxargi@euskalnet.net

BELORRIETA 15, BEHEA 20550 ARETXABALETAK - GIPUZKOA

943 532 628 645 734 032

INSTALAKUNTZA ELEKTRIKOAK




Instalazioen mantenu osoa
Berokuntza • Gasa
Aire girotua • Haizeztatzea

Basabe industrialdea B-3. Aretxabaleta.
Tel.: 943 77 19 88. Faxe: 943 79 59 97



ALUMINIOA/P.V.C.a/POLIURETANOA
ALUMINIOA-EGURRA
PERTSIANAK ETA OSAGIAK



Aluminios
KURTZEBARRI
Aluminioak

Araba ibilbidea, 17 eta 25
•Tel.: 943 79 28 41 •Faxe: 943 79 79 06
•20550 Aretxabaleta (Gipuzkoa)
•E-mail: kurtzebarriehiak@euskalnet.net



Basabe poligonoa D-2-1
117 posta kutxa
ARETXABALETAK
Telefonoa eta faxe:
943 79 78 45
Poltsikokoa:
616 96 57 98

- Barruko zein kanpoko lorezaintza.
- Ureztatze sistemak: automatikoki, eskuz eta tanta-jario bidez.
- Lorentzi-euskarriak, balkonerak, eta abar.

ARETXABALETAK
ITURGINTZA

Durana, 16-Tel.: 79 17 53
ARETXABALETAK

J.J. ITURGINTZA
IRURE

URA
GASA
KALEFAKZIOA



MITARTE 15
ARETXABALETAK

943 793 187